

**TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA
LURRALDE OREKAREN SAILA**

8391

Abenduaren 5eko 753/2008 FORU AGINDUA, Biasteriko udalerriko Arau Subsidiarioen aldaketa, Paganoseko 48. sektoreari buruzkoa, behin betiko onartzekoa eta etetzekoa.

I.- AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2008ko martxoaren 12an Biasteriko Udalak planeamenduko arau subsidiarioen aipatu aldaketari hasierako onarpena ematea erabaki zuen, baita espedientea hilabetez jendaurrean jartzea ere. Azken horretarako, iragarki bana argitaratu zen 2008ko martxoaren 28ko Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (35 zenbakia), 2008ko uztailaren 17ko El Correo egunkarian eta udaletxeko iragarki oholean.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean egon zen bitartean, Susana Armas Viñegra andreak alegazio bat aurkeztu zuen, eta horri buruzko txostena egin ondoren, udalak, 2008ko maiatzaren 14ko bilkuran, espedienteari behin-behineko onarpena ematea eta espediente hori Eusko Jaurlaritzako Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeari igortzea (sarrera eguna: 2008ko uztailaren 17a) erabaki zuen; batzorde horrek 2008ko uztailaren 28an helarazi zion espedientea Arabako Foru Aldundiari, aldundiak egoki zeritzen txostenak egin zitzaizkion.

Hirugarrena.- Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legeak 91.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeko Planeamendu Atalak iritzia agertu zuen irailaren 18ko 6/2008 bilkuran.

Laugarrena.- Biasteriko Udalak Arabako Foru Aldundiari bidali zion espedientea (sarrera eguna: 2008ko azaroaren 3a), hala bazegokion, behin betiko onar zezan.

Bosgarrena.- Era berean, Arabako Hirigintza Batzordeak txostena egin zuen espedienteari buruz azaroaren 28an egindako 7/2008 bilkuran, Diputatuen Kontseiluak 1999ko abenduaren 14an onartutako 155/99 Foru Dekretuan agindutakoa betetzeko.

II.- OINARRIAK

Lehenengoa.- Bodegas Solar de Ayalak eta Edilberto Ibañez jaunak sustatutako aldaketa honek xedetzat du Paganos izeneko 48. sektorearen eremua aldatzea, eta Biasteriko udalerriko egungo Arau Subsidiarioak Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legea egokitzea, Sektore horri dagokionez.

Zehazkiago:

- Sektorearen mugapena aldatzea, sektoretik kanpo utziz ekialdetik doan bide publikoa. Horrela, lurzoruaren azalera 25.750 m²-tik 25.062,54 m²-ra murrizten da. Kanpoan utzitako lursaila, espedienteak aipatzen ez badu ere, nekazaritza intereseko zonen babeserako lurzoru urbanizaezinezko ondoko zonan txertatuko litzake, zati batean komunikazio sareetarako eta azpiegituretarako babes edota erreserbapen.

- Bere eraikigarritasuna Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legeko 77.4 artikuluan ezarritako gutxienezko 0,25 m²t/m²-ra egokitzea, eremuan gauzatu daitekeen bizitegirako aprobetxamendua totalizatuz horrela: 6.256,64 m²t.

- Bere ahalmena areagotzea, Arau Subsidiarioek aitoritutako 20 etxebizitzetatik guztira 44 etxebizitzara igaroz. Horrela, dentsitatea honako hau izango da: 17,56 etx./Ha.

- Aurreikusitako jarduketako sistema (konpentsazioa) berriz ere zehaztea, eta hitzarmen sistema ezartzea; horrela, Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Lege berrira egokituko da.

Bigarrena.- Espedienteak honako hauetan oinarritzen du proposamena: Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Lege berriaren xedapenetara egokitu beharrean, iraunkortasunari eta lurzoruaren erabilera intentsiboagoari lotutako egungo irizpideetara egokitu beharrean eta Arabako Lurralde Historikoko Lurraldeko Plan Partzialek bizitegirako

**DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL
Y EQUILIBRIO TERRITORIAL**

8391

ORDEN FORAL 752/2008, de 5 de diciembre, de aprobación definitiva y suspensión de la modificación de las Normas Subsidiarias Municipales de Laguardia, referente al Sector 48 de Párganos.

I.- ANTECEDENTES

Primero.- Con fecha 12 de marzo de 2008, el Ayuntamiento de Laguardia acordó aprobar inicialmente la modificación de referencia de las Normas Subsidiarias de Planeamiento, así como someter el expediente a información pública por el plazo de un mes, hecho que fue practicado mediante anuncio en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava nº 35 de 28 de marzo de 2008, en el Periódico El Correo de 17 de julio de 2008 y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Segundo.- Durante el período de información pública no fue presentada una alegación por Dña. Susana Armas Viñegra, y una vez informada, el Ayuntamiento procedió, en sesión del día 14 de mayo de 2008 a aprobar provisionalmente el expediente y remitirlo a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco donde tuvo su entrada el 17 de julio de 2008, la cual dio traslado del expediente a la Diputación Foral de Álava en fecha 28 de julio de 2008 para la emisión de los informes que estimara convenientes.

Tercero.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 91.2 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, fue informado por la Sección de Planeamiento de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco en su sesión 6/2008, de fecha 18 de septiembre.

Cuarto.- El Ayuntamiento de Laguardia remitió el expediente a la Diputación Foral de Alava para su aprobación definitiva, si procediese, donde tuvo su entrada el día 3 de noviembre de 2008.

Quinto.- Asimismo, en cumplimiento de lo preceptuado en el Decreto Foral del Consejo de Diputados núm. 155/99, de 14 de diciembre, este expediente fue informado por la Comisión de Urbanismo de Álava en su Sesión 7/2008, de 28 de noviembre.

II.- FUNDAMENTOS

Primera.- La modificación, promovida por Bodegas Solar de Ayala y D. Edilberto Ibañez, tiene por objetivo modificar el ámbito del Sector 48 de Párganos y adaptar las actuales Normas Subsidiarias Municipales de Laguardia a la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo, en lo concerniente a dicho Sector.

Se concreta en:

- La redelimitación del Sector, excluyendo del mismo el camino público que discurre por el Este. Con ello su superficie se reduce de 25.750 m²suelo a 25.062,54 m² suelo. El terreno excluido, aunque el expediente no lo menciona, se supone pasaría a integrarse en la vecina zona de suelo no urbanizable de protección de zonas de interés agrícola con el condicionante de protección y/o reserva para redes de comunicaciones e infraestructuras en parte de la misma.

- La adecuación de su edificabilidad al mínimo de 0,25 m²t/m²s establecido en el artículo 77.4 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo, totalizando así el aprovechamiento residencial materializable en el ámbito, los 6.256,64 m²t.

- El aumento de su capacidad, pasando de las 20 viviendas que le reconocen las NN.SS. a un total de 44. Con ello su densidad alcanza las 17,56 viv./Ha.

- La redefinición del Sistema de Actuación previsto (Compensación) como de Concertación, adaptándolo así a la nueva Ley 2/2006.

Segunda.- El expediente argumenta la propuesta en la adaptación a las determinaciones de la nueva Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo, en su adecuación a los actuales criterios ligados a la sostenibilidad y uso más intensivo del suelo y a los que, referidos a densidades y tipologías edificatorias de nuevos desarrollos residen-

garapen berrien dentsitatei eta eraikuntza tipologiei buruz ezarritakoetara egokitu beharrean.

Hirugarrena.- Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak irailaren 18an egindako 6/2008 bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen aho batez:

I.- “Biasteriko udalerriko udal planeamenduaren arau subsidiarioak Paganos 48 sektorean aldatzea –iparraldeko bizitegirako sektore berria-” espedienteari buruzko txostena egitea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeari, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeari eta Autonomia Erkidego Osoko Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremani buruzko Legea aldatzen duen uztailaren 16ko 5/1993 Legeari egokitzeko.

II.- Proposatutako Espazio Librean-Zona Berdeen zati bat Sistema Orokor kalifikatzeari buruz egiten den balorazioa, txostenaren gorputzean jasotakoa, behin betiko onartzeko eskuduna den organoari helaraztea.

III.- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Lurzoru eta Hirigintza Zuzendaritzak igorritako txostena behin betiko onartzeko eskuduna den organoari helaraztea.

Laugarrena.- Aurreikusitako jarduketara sistema berriz ere zehazteko, eraikuntza dentsitate berri bat jartzeko eta bizitegirako ahalmen berri bat jartzeko proposamenei dagokienez, ez dago inolako oztoporik.

Bosgarrena.- Sistema orokorren sarearen eta tokiko sistemen sarearen hornidura eta ekipamenduetara xedatutako lurzatiaren erreserbarako Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legeko 78., 79. eta 105. artikuluan deskribatzen diren gutxieneko estandarrei dagokienez, adierazi behar da aurkeztutako agiriak ez duela xedatzen argi eta garbi betetzen direnik. Horregatik, bi hornidura mota horiei dagozkien kuantifikatzeaz eta bereizteaz gain, tokiko sistemen sareko ekipamendu pribatuak, ibilgailuentzako aparkalekuak eta landaredia ere aipatu beharko dira, zentzu berean.

Seigarrena.- Herrilan eta Garraio Saileko Errepide Zerbitzuaren txostenak xedatzen du espedienteak aurrera egin ahal izateko ezinbestekoa izango dela Sektorearen barrutik doan “Paganosko herribide” izeneko A-4201 errepidearekin ondo lotzea. Bien arteko bidegurutzeak hamabi (12) metroko gutxieneko biraketa-erradioak edukiko ditu.

Zazpigarrena.- Ingurumen Saileko Ur Zerbitzuaren txostenak adierazten du Arabako Errioxako Uren Kontsorzioak konpromisoa hartu beharko duela, ur edangarriaren hornidura eta kontrola bermatzeko eta hondakin urak hodi biltzaileetara eta handik HUA egokira eramango direla bermatzeko.

Zortzigarrena.- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak adierazitakoaren ildo beretik, 2/06 Legearen 27., 1., 4. eta 5. artikuluan xedatzen den bezala, komunitateak hirigintzako jardunagatik sortutako gainbalioetan komunitateak duen parte hartzea lurzati eraikigarrian gauzatu behar dela. Horrela, batez besteko hirigintza eraikigarritasunaren % 10a hirigintza kargetatik aske dauden 4 lurzati osotan gauzatu beharko da. Gainerako zatikiaren balioa bakarrik ordaindu ahal da dirutan. Biasteriko Udalak, lagapen hori babes publikoko etxebizitzetara xedatu beharko du. Hala ere, gai hori Arauek 48. Sektoreak garatuko duen Plan Partzial berriari buruz jasoko duten fitxa berrian zehaztuko da.

Bederatzigarrena.- Formalki, aurkeztutako dokumentuak zenbait gabezia ditu, indarrean dagoen araudiak 48. sektoreari egiten dizkion erreferentzia batzuk besterik ez baititu aldatzen. Bestalde, garapen tresnetan ohikoak diren adierazpen grafiko gehiegi daude, egin nahi dena egiturazko Antolamendurako Plan bat aldatzea denean. Zentzu horretan, eta Hirigintza Planeamenduaren Arautegiko 161. artikuluari nahiz Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legeko 104. artikuluari jarraiki, dokumentuak proposatutako eremuaren aldaketa jaso behar du, indarrean dauden Arauetako II.3.1, II.5.2 eta II.4.2 planoetan, eta Sektorearen hirigintza fitxa bat ere edukiko du, tokiko sistemak eta

ciales, establecen los Planes Territoriales Parciales del Territorio Histórico de Álava.

Tercera.- La Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco 6/2008, de 18 de septiembre, adoptó el siguiente acuerdo, por unanimidad de sus asistentes:

I.- Informar favorablemente el expediente “Modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento referente al Sector 48 Párganos-Nuevo Sector Residencial Norte” del municipio de Laguardia, en lo que respecta a su adecuación a la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, a los instrumentos de Ordenación del Territorio de la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco, y a los aspectos señalados en la Ley 5/1993, de 16 de julio, de Modificación de la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de los Territorios Históricos.

II.- Trasladar al órgano competente para la aprobación definitiva la valoración que se hace en el cuerpo del informe referida a la calificación como Sistema General de una parte de los Espacios Libres-Zonas Verdes propuestos.

III.- Remitir al órgano competente para la aprobación definitiva el informe emitido por la Dirección de Suelo y Urbanismo del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

Cuarta.- A las propuestas de redefinición del Sistema de Actuación previsto, de una nueva densidad edificatoria y nueva capacidad residencial, no cabe poner objeción alguna.

Quinta.- Con respecto a los estándares mínimos para reserva de terrenos destinados a dotaciones y equipamientos de la red de sistemas generales y de la red de sistemas locales, descritos en los arts. 78, 79 y 105 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo, hay que indicar que el documento presentado no establece claramente su cumplimiento, por lo que, además de cuantificar y diferenciar los correspondientes a ambos tipos de dotaciones, habrá de referirse, en el mismo sentido, a los equipamientos privados de la red de sistemas locales, aparcamiento de vehículos y vegetación.

Sexta.- El informe del Servicio de Carreteras del Departamento de Obras Públicas y Transportes establece como condición para que el expediente prospere, una adecuada conexión con la carretera A-4201 del denominado “camino vecinal de Párganos”, que discurre interiormente al Sector y en la que se apoya su vialidad, debiendo constar dicha intersección con radios de giro mínimos de doce (12) metros.

Séptima.- El informe del Servicio de Aguas del Departamento de Medio Ambiente indica la necesidad de contar con un compromiso por parte del Consorcio de Aguas de la Rioja Alavesa que garantice el suministro y control del agua potable en el abastecimiento y garantizar que las aguas residuales se llevarán a colectores para que sean conducidas a la EDAR correspondiente.

Octava.- En el sentido apuntado por el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, tal y como dispone el art. 27, 1, 4 y 5 de la Ley 2/06, la participación de la comunidad en las plusvalías generadas por la acción urbanística ha de materializarse en parcela edificable de manera que el 10% de la edificabilidad urbanística media habrá de constituirse en 4 parcelas completas libres de cargas de urbanización, pudiendo únicamente la fracción restante sustituirse por abono metálico de su valor, y el Ayuntamiento de Laguardia deberá destinar dicha cesión a vivienda de protección pública, cuestión ésta a determinar en la nueva ficha de las Normas relativa al nuevo Plan Parcial que desarrolle el Sector 48.

Novena.- En el orden formal, el documento presentado adolece de algunas carencias, ya que sólo modifica parte de las referencias que al Sector 48 hace la normativa vigente. Por otra parte, abunda en demasía, en expresiones gráficas propias de los instrumentos de desarrollo, cuando de lo que se trata es de modificar un Plan de Ordenación estructural. En este sentido y de acuerdo con los arts. 161 del Reglamento de Planeamiento Urbanístico y el art. 104 de la Ley 2/06 de Suelo y Urbanismo, el documento habrá de incluir la modificación de ámbito propuesto, en los planos II.3.1, II.5.2 y II.4.2 de las Normas vigentes, además de incluir una ficha urbanística del Sector

sistema orokorrak eta etorkizuneko Plan Partzialaren berezko xedapen horiek bereiziz.

Hamargarrena.- Aurkeztutako alegazioari dagokionez, Udalak behin-behineko onarpenean adierazitako zentzuan ebatzi behar da.

Horregatik, neure esku ditudan ahalmenez baliatuz, hauxe

XEDATU DUT:

Lehenkoa.- Behin betiko onartzea Biasteriko udalerriko Arau Subsidiarioen Paganos izeneko 48. sektoreari dagokion aldaketa, aurreikusitako jarduketa sistema berriz ere zehazteari dagokionez, eraikuntza dentsitate berriari dagokionez eta bizitegirako ahalmen berriari dagokionez.

Bigarrena.- Espediente horren behin betiko onarpena etetea, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 91. artikuluari jarraiki, aipatu Legeko 27.4 eta 78. artikuluetan xedatutakoaren aurkakoa baita, eta ez direlako betetzen Hirigintza Planeamenduaren Arautegiko 161. artikuluan nahiz Errepideen Arloko Arautegian zehaztutako ordenamendu juridikoan ezarritako eskakizun dokumental eta materialak, ondorengo aldaketa edo argibide hauek egin bitartean:

1) Sistema orokorren sarearen eta tokiko sistemen sarearen hornidurara eta ekipamendurara zuzendutako lursailen erreserbari dagokionez:

Espedienteak eska daitekeen espazio libreen hornidurarik handiena justifikatu eta grafiatu beharko du, Sistema Orokorrak Tokiko Sistemetatik bereiziz.

2) Hirigintzako jardunagatik sortutako gainbalioetan komunitateak duen parte hartzea gauzatzeari dagokionez. 2/06 Legearen 27., 1., 4. eta 5. artikuluan xedatzen den bezala, komunitateak hirigintzako jardunagatik sortutako gainbalioetan komunitateak duen parte hartzea lurzati eraikigarrian gauzatu behar dela. Horrela, batez besteko hirigintza eraikigarritasunaren % 10a hirigintza kargetatik aske dauden 4 lurzati osotan gauzatu beharko da. Gainerako zatikiaren balioa bakarrik ordaindu ahalgo da dirutan. Biasteriko Udalak, lagapen hori babes publikoko etxebizitzetara xedatu beharko du. Gai hori Arauek 48. Sektoreak garatuko duen Plan Partzial berriari buruz jasoko duten fitxa berrian zehaztuko da.

3) Errepideen Arloko Arautegiari dagokionez. Sektorearen barrutik doan "Paganosko herribide" izeneko A-4201 errepidearekin ondo lotuko da. Bien arteko bidegurutzek hamabi (12) metroko gutxieneko biraketa-erradioak edukiko ditu.

4) Dokumentuak forma aldetik dituen gabeziei dagokionez. Proposatutako eremuaren aldaketa jaso behar du, indarrean dauden Arauetako II.3.1, II.5.2 eta II.4.2 planoetan, eta Sektorearen hirigintza fitxa bat ere edukiko du, tokiko sistemak eta sistema orokorrak eta etorkizuneko Plan Partzialaren berezko xedapen horiek bereiziz.

5) Uraen hornidurari eta hondakin uren arazketari dagokionez. Arabako Errioxako Uren Kontsurtzioak konpromisoa hartu beharko du, ur edangarriaren hornidura eta kontrola bermatzeko eta hondakin urak hodi biltzaileetara eta handik HUA egokira eramango direla bermatzeko.

Hirugarren.- Aipatutako aldaketak ez dira funtsezkoak. Beraz, zuzendutakoan, berriro jendaurrean jarri gabe, zuzenean igorriko zaio Foru Aldundiari espedienteak, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezten eta argitara dadin.

Laugarrena.- Foru agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Bosgarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek abiaraz dezaketene beste edozein neurritz gain, ondoko errekurtsioak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsioa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

diferenciando sistemas locales y generales y aquellas determinaciones propias del Plan Parcial futuro.

Décima.- Respecto de la alegación presentada, procede resolverla en el sentido efectuado por el Ayuntamiento en la aprobación provisional.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobar definitivamente la Modificación de las Normas Subsidiarias Municipales de Laguardia referente al Sector 48 de Páganos en lo concerniente a la redefinición del Sistema de Actuación previsto, de una nueva densidad edificatoria y nueva capacidad residencial.

Segundo.- Suspender la aprobación definitiva de dicho expediente, en virtud del art. 91 de la Ley 2/2006 de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, al ser contrario a lo dispuesto en los arts. 27.4 y 78 de dicha Ley y por incumplimiento de exigencias documentales y materiales establecidas en el Ordenamiento Jurídico en el art. 161 del R.P.U., así como en la Normativa Sectorial de Carreteras, hasta que sean introducidas en el mismo las siguientes modificaciones o aclaraciones:

1) Respecto de la reserva de terrenos destinados a dotaciones y equipamiento de la red de sistemas generales y de la red de sistemas locales:

El expediente justificará y grafiará la mayor provisión de espacios libres exigible diferenciando los Sistemas General y Local correspondientes.

2) Respecto de la materialización de la participación de la comunidad en las plusvalías generadas por la acción urbanística. Tal y como dispone el art. 27, 1, 4 y 5 de la Ley 2/06, la participación de la comunidad en las plusvalías generadas por la acción urbanística ha de materializarse en parcela edificable de manera que el 10% de la edificabilidad urbanística media habrá de constituirse en 4 parcelas completas libres de cargas de urbanización, pudiendo únicamente la fracción restante sustituirse por abono metálico de su valor, y el Ayuntamiento de Laguardia deberá destinar dicha cesión a vivienda de protección pública, cuestión ésta a determinar en la nueva ficha de las Normas relativa al nuevo Plan Parcial que desarrolle el Sector 48.

3) Respecto de la Normativa Sectorial de Carreteras. Se incluirá una adecuada conexión con la carretera A-4201 del denominado "camino vecinal de Páganos", que discurre interiormente al Sector y en la que se apoya su vialidad, debiendo constar dicha intersección con radios de giro mínimos de doce (12) metros.

4) Respecto de las carencias de orden formal que presenta el documento. Habrá de incluir la modificación del ámbito propuesto en los planos II.3.1, II.5.2 y II.4.2 de las Normas vigentes, además de incluir una ficha urbanística del Sector diferenciando sistemas locales y generales y aquellas determinaciones propias del Plan futuro.

5) Respecto del abastecimiento de agua y la depuración de las aguas residuales contará con un compromiso por parte del Consorcio de Aguas de la Rioja Alavesa que garantice el suministro y control del agua potable en el abastecimiento y garantizar que las aguas residuales se llevarán a colectores para que sean conducidas a la EDAR correspondiente.

Tercero.- Las modificaciones señaladas no son sustanciales, por lo que una vez subsanadas se elevará el expediente a la Diputación Foral, sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de declarar su ejecutoriedad y proceder a su diligenciación y publicación.

Cuarto.- Publicar la presente resolución en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

Quinto.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que estimen procedente en defensa de sus intereses:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa jar dakiok (administrazioen kasuan, errekerimendua), foru agindu hau eman duen organoari. Horretarako, berriz, hilabete izango da, honako hau argitaratu edo honen berri eman eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko abenduaren 5a.– Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko Foru Diputatua, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

Iragarkiak

INGURUMEN SAILA

8476

Eskuernagako hondakindegia zaharraren luiziak eragindako area bere onera ekarri eta lehengoratzeko obren behin betiko esleipena.

1. ERAKUNDE ESLEITZAILEA

a) Erakundea: Arabako Foru Aldundia. Ingurumen Saila. Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzua.

b) Espedientea izapidetzen duen bulegoa: Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzua.

c) Espedientearen zenbakia: 08/319.

2. KONTRATUAREN HELBURUA

a) Kontratu mota: hornidura kontratua. Prozedura: irekia.

b) Xedea: Eskuernagako hondakindegia zaharraren luiziak eragindako area bere onera ekarri eta lehengoratzeko obrak.

c) Lizitaziorako iragarkia argitaratu zen aldizkari ofiziala eta eguna: 2008ko abuztuaren 13ko Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala (92. zenbakia). Iragarki zenbakia: 08/5343.

3. IZAPIDETZEA, PROZEDURA ETA ESLEITZEKO ERA

a) Izapideak: ohikoak.

b) Prozedura: irekia.

4. LIZITAZIORAKO OINARRIZKO AURREKONTUA: 295.937,26 euro, BEZa barne.

5. BEHIN BETIKO ESLEIPENA

a) Eguna: 2008ko abenduaren 11.

b) Kontratista: Construcciones Aguado Cabezudo S.A. El Salvador kalea, 12 – behe. PK 01012. Vitoria-Gasteiz.

IFZ: A-01.006.634.

c) Nazionalitatea: espainiarra.

d) Esleipenaren zenbatekoa: 211.575,35 euro (BEZa barne).

e) Esleipenari buruzko ebazpena: azaroaren 17ko 210/08 Foru Dekretua.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko abenduaren 11.– Ingurumen Saileko foru diputatua, MIKEL MINTEGI AREITIOAURTENA.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

OGASUN ZUZENDARITZA

Derrigorrezko Dirubilketa Agentzia

8527

Egin gabeko jakinarazpenak

Arabako Zergen Foru Arau Orokorraren (6/2005 Foru Araua, otsailaren 28koa) 108. artikuluan xedatutakoaren indarrez, administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik jakinarazpena ezin egin daitekeenez, eta gutxienez aipatutako artikuluan agindutako jakinarazpen ahaleginak egin direlarik, iragarki honen bidez zitazioa egiten zaie ondorengo zerrendan aipatzen diren zergapekoei edo beren ordezkari,

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, 5 de diciembre de 2008.– El Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

Anuncios

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE

8476

Adjudicación definitiva para las "Obras de estabilización y restauración del área afectada por deslizamiento de la antigua escombrera de Villabuena".

1. ENTIDAD ADJUDICADORA

a) Organismo: Diputación Foral de Álava. Departamento de Medio Ambiente. Servicio de Medio Ambiente y Biodiversidad.

b) Dependencia que tramita el expediente: Servicio de Medio Ambiente y Biodiversidad.

c) Número de expediente: 08/319.

2. OBJETO DEL CONTRATO

a) Tipo de contrato: Contrato de suministro. Procedimiento abierto.

b) Descripción del objeto: "Obras de estabilización y restauración del área afectada por deslizamiento de la antigua escombrera de Villabuena".

c) Boletín o Diario Oficial y fecha de publicación del anuncio de convocatoria: Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava número 92 de 13 de agosto de 2008 con el número de anuncio 08/5343.

3. TRAMITACIÓN, PROCEDIMIENTO Y FORMA DE ADJUDICACIÓN

a) Tramitación: Ordinaria.

b) Procedimiento: Abierto.

4. PRESUPUESTO BASE DE LICITACIÓN: 295.937,26 euros, IVA incluido.

5. ADJUDICACIÓN DEFINITIVA

a) Fecha: 11 de diciembre de 2008.

b) Contratista: Construcciones Aguado Cabezudo S.A. C/El Salvador, 12 – bajo. C.P. 01012. Vitoria-Gasteiz.

N.I.F.: A-01.006.634.

c) Nacionalidad: Española.

d) Importe de adjudicación: 211.575,35 € (I.V.A incluido).

e) Resolución de adjudicación: Decreto Foral 210/08 de 17 de noviembre.

Vitoria-Gasteiz, 11 de diciembre de 2008.– El Diputado Foral del Departamento de Medio Ambiente, D. MIKEL MINTEGI AREITIOAURTENA.

DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

DIRECCIÓN DE HACIENDA

Agencia Ejecutiva

8527

Notificaciones Pendientes

En virtud de lo dispuesto en el artículo 108 de la Norma Foral General Tributaria de Álava (Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero), no siendo posible practicar la notificación por causas no imputables a la Administración y habiéndose realizado, al menos, los intentos de notificación exigidos por el citado artículo, por el presente anuncio se cita a los obligados tributarios o representantes que a continuación